



SUKAR HORIA

Xanpaina eta petrolioa

A bendua igaro zaigu, urtarrilean sartu gara eta, beraz, ipar hemisferioan negua hasi zenetik aste batzuk igaro dira dagoeneko, tenperatura epel bezain kezkarriekin. Gure arbasoek, neguko solstizioan, eguna eta gauaren txandakatzea gurtzen zuten, baita urtearen zikloa edo eguzkiaren berpiztea ere, urtaro berriak uzta onak ekarriko zituelakoan. Ondoren, kristautasunak antzinako erritu horiek probestu eta eraldatu egin zituen, apurka-apurka bere gurtze propioak ezartzeko. Azken hamarkadetan beste transformazio bat jazo da: ekonomiaren etengabeko hazkundearen mesedetan, kapitalismoak kontsumo-orgia bat ezarri du kristautasunaren lekuan. Natura ahaztu dugu, kristautasuna atzeko planoan dugu. Egun, Gabonak kontsumismoa dira.

Gutziz barneratuta izan arren, ondo begiratuta, Gabonetan kontsumitzen dena neurrigabekeria hutsa dela ondorioztatzea ez da batere zaila. Haatik, iparralde globalean gero eta jende gutxiago da gehiegikeria hori aurrera eramateko gai, eta, munduko leku askotan, beste askok ezin izan dute inoiz horrelakorik egin. Edonola ere, itsaski, ardo, jostailu, arropa edo elektronikak kantitate jasanezinak kontsumitzen dira gure lurraldean. Kalkulaezina Lurraren orekarentzat data hauek suposatu dezaketena: milaka tona

hondakin, erregai fosilen errekontza, baliabideen xahutzea... Bizi dugun krisi ekologikoa larriagotu besterik ez da egiten horrela.

Urtarrilean, berriz, familia askok go-riak ikusten dituzte hilabetearen amaierara heltzeko. Kontsumoaren mozkorraldiak ajeari ematen dio bide. Gainera, urte berriarekin, prezioek gora egin ohi dute, baina soldatek ez dute bide bera egiten. Aurten, esaterako, urte arteko inflazioa %8,2 eta %5,9 izan da espainiar eta frantziar estatuetan, hurrenez hurren. Soldatak, aldiz, lehenengoan %2,7 eta bigarrenen %4 baino ez dira igo. Horrek gizateriaren bizi-kalitatean eragiten du zuzenean, batez ere, gizartearen sektore zaugarrietan.

Gure gizarteak ere 200 urte daramatza lurra urtez urte berritzen dituenak baino askoz baliabide gehiago kontsumitzen. Are gehiago, kontsumo hori azele-raturaz joan da azken hamarkadetan. Gure etxeetan itsaskiak eta xanpaina bezala, zibilizazio industrialak neurririk gabe irensten du petrolioa. Horrek eragin duen hazkundearen ondorioz, planetaren mugen aurka talka egiten ari gara zuzenean, eta gerrikoa estutzeko garaia heldu da. Erregai fosilek milaka soldata extra ekarri dizkigute, eta hemendik aurrera hileko irabaziekin bizitzen ikasi beharko dugu berriz ere. ●

Mari D.

ITXARO BORDA
IDAZLEA

O lentzerori emazte bat gehitu diotela ikusten dudan aldi oroz, irri sarkastikoz lehertzeko gogoia pizten zait. Gure ikazkina, azken urteotan, Mari Domingirekin agertzen da karriketara, haurrek bikote horretan beren gurasoena zehatz ikusten dutela: aita, ama, umeak. Besterik ez. Gauza ezaguna da, txikienak hetero-araua ez dakarren edozein eredurekin txokatuak izan daitezkeela, ez direla traumatizatu behar, bereziki Eguberri egunetan.

Badirudi ezkon edo bikotekide gabea izatea ahalkegarria dela: ezkontzak zentzuzko zaitu alabaina eta gizarte

leku on bat segurtatzen dizu. Familieta-ko osaba edo izeba sumituaren jokotik kanpo zaude, ezkerreko hatzean eraztun bat duzun ber. Mutil edo neska zahar, mutxurdin, karlos, ezkongabe, hainbat hitz baditugu euskaraz egoera *lotsagarri* horren errateko, nahiz eta baserri guneetan, Pierre Bourdieuk ederki aztertu zuen bezala Bearnoarentzat, laborari-etxeetako gizonen edo emazteen segidari eza egiazko tragedia bilakatzen den.

Lau andre, hiru mutxurdin, bat alarguna ari ziren trukean harri xabal baten gainean... Elizanbururen algarra gordina gaur ere jasanezina al zaigu? ●